



**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK  
(EEE/EVE) DEITUTAKO LEHIAKETAREN  
KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA  
BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, PROZEDURA  
IREKIAZ, EEE/EVE TALDEAREN BULEGOETAKO  
HARRERA ZERBITZUA KONTRATATZEKO**

**ESPEDIENTE ZENB.:**

ESG/13/003

PROZEDURA IREKIA



## KARATULA

**ADJUDIKATZEKO ERA:** Lehiaketa irekia.

**ESPEDIENTE ZENB.:** ESG/13/003

### **A. KONTRATUAREN XEDEA**

Energiaren Euskal Erakundeak Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36, Bilbon dituen bulegoetako harrera zerbitzua kontratatzea, 2014/01/01etik 2014/12/31ra bitarteko epean.

### **B. SAIL / ORGANO KONTRATATZAILEA**

EEE, honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

- I.F.Z.: Q-5150001E
- Kontratazioaren pertsona/teknikari arduraduna: Nahikari Etxabarri
- Telefonoa: 94-403.56.00/ 94-403.56.98/
- Posta elektronikoa: netxabarri@eve.es
- Kontratatzailearen profila: [www.eve.es](http://www.eve.es)

### **C. LIZITAZIOAREN GEHIENKO PREZIOA ETA AURREIKUSITAKO KONTRATUAREN PREZIOA**

- Lizitazioaren gehieneko prezioa: 70.000 € (BEZik gabe).
- Aurreikusitako kontratuaren prezioa: 140.000 € (BEZik gabe)

### **D. IZAPIDEAK**

Ohikoa.

### **E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA**

Eskaintzak edo proposamenak 2013ko urriaren 28ko 12:00ak arte jasoko dira.

### **F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA**

Proposamenak Energiaren Euskal Erakundeko Giza Baliabideak eta Zerbitzu Orokorrak Sailean aurkeztuko dira, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

### **G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA**

Ez dagokio.

### **H. BEHIN BETIKO BERMEA**

Ez dagokio.

### **I. PREZIOEN BERRIKUSPENA**

Ez dagokio.

### **J. GAUZATZEKO EPEA ETA LEKUA / ZERBITZUAK EMATEA**

Epea: 2014/01/01etik 2014/12/31ra.

Lekua: EEE/EVE Taldearen bulegoetan, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo..

### **K. BERMEAREN EPEA**

Ez dagokio.

### **L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK**

Ez dagokio.



**M. ALDAGAIEN ONARPENA**

Ez dagokio.

**N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA**

Plegu honen 8.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

**O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Esleipena erabakitzeke irizpide orokorrak hauexek dira:

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak
<b>B gutun-azala. Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak</b>		
1	Lan programa	10
2	Lan metodologia	10
3	Prestakuntza programa	10
4	Lizitatzailleek proposatutako hobekuntzak	10
<b>C gutun-azala. Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak</b>		
5	Proposamen ekonomikoa	60
GUZTIRA		100

**Proposamen ekonomikoa (gehienez 60 puntu, 100 punturen artean)**

Lizitatzailleak lortu beharreko puntuak = $\frac{\text{Eskaintza ekonomikoa}}{\text{Lizitatzaillearen eskaintza}} \times 60$ puntu
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**P. ZIGORTZEA**

Plegu honetan aurreikusten direnak.

**Q. LUZAPENA**

Kontratua, alde biak elkar hartuta, eta hura amaitu aurretik, urtebetez (1) luza daiteke, hau da, 2015/01/01etik 2015/12/31ra arte, enpresa esleipendunak egindako baldintza berberak kontuan hartuz.

**R. LANAK ZATIKA JASOTZEA**

Ez dagokio.

**S. PREZIOAREN ORDAINKETA**

Kontratuari dagokion prezioa hilabetea igarotakoan ordainduko da, gehienez ere hogeita hamar (30) eguneko epean egingo da, esleipendunak edo kontratistak EEE/EVERi dagokion faktura ematen eta azken horrek onartzen dion egunetik kontatzen hasita.

**T. HIZKUNTZA BALDINTZAK**

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo



batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

**U. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete Foru Aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saileko Lana eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua saileko Ingurumen sailburuordetza egongo dira –IHOBE sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeko aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Era berean, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeak aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa (bestak beste, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunaz diharduena eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege organikoa, Gizon eta Emakumeen arteko Benetako Berdintasuna lortzeari buruzkoa den legea, hain zuzen ere).



## OINARRIZKO BALDINTZAK

### 1. ARAUBIDE JURIDIKOA

#### 1.1. Kontratuaren araubide juridikoa:

- Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan eta bere karatulan zehaztutakoa, baita Zehaztapen Teknikoen Txostenean jasotzen dena ere. Horrekin batera, Energiaren Euskal Erakundeak (“**EEE/EVE**”) onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan adierazitakoa (“**KABI**”) eta Kontratatzailaren Eskakizuna atalean argitaratua ([www.eve.es](http://www.eve.es)) eta esleipendunarekin sinatuko den kontratuan jasoko diren baldintzekin eta itunekin bat etorri. Hala ere, Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan jasotzen ez den gainerako guztiari dagokionez, TRSPKLen I Liburukiko V. Tituluan xedatutako arauak aplikatuko dira.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera (“**TRSPKL**”). Plegu honen klausuletan adierazten diren gaiak dagokienez, soil-soilik.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (aurrerantzean “**HAKLEO**”), aurreko puntuan azaldutako gaiak dagokienez.
- Zuzenbide Pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren interpretazio, ondorio, betetze eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

#### 1.2. Lanak egiten ariutako diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzaileek bete beharko dituzte indarrean dagoen lan eta gizarte legeria.

#### 1.3. Kontratuaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako dokumentuak eta eranskinak edo itundutakoa gauzatzean zerikusia izan dezakeen Administrazioak xedatutako arau, plegu eta aginduen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista edo enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

### 2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua Plegu honen Karatulan “**A**” **ATALEAN** adierazia da.

Hori guztia baldintza teknikoaren arabera, Zehaztapen Teknikoen Txostenean adierazten dena. Plegu honetan jasoko dena, **V. eranskin**a, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako proiektua kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

### 3. LIZITAZIOAREN GEHINEKO PREZIOA, KONTRATUAREN PREZIOA

a) Kontratu honen gehieneko prezioa Plegu honen Karatulan “**C**” **ATALEAN** adierazitako zenbatekoa da.

b) Kontratuaren aurreikusitako balioa Plegu honen karatulako “**C**” **ATALEAN** azaltzen da, aurreikusitako balioa kalkulatzeko, TRSPKLen 88. artikulua xedatutakoa kontuan hartu da, BEZ gabe.

c) Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa. Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Plegu honetan bildutako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).

d) Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, EEE/EVEk ez ditu ordainduko, V. eranskinarekin ageri den Baldintza Teknikoen Txostenaren arabera.



#### **4. PREZIOEN BERRIKUSPENA**

Karatularen “I” **ATALEAN** zehazten dena beteko da.

#### **5. GAUZATZEKO EPEA**

5.1. Gauzatze epea Plegu honen Karatularen “J” **ATALEAN** adierazitakoa izango da. Ezarritako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira edo EEE/EVEk lan programan onartuko dituenak izango dira.

5.2. V. eranskineko Zehaztapen Teknikoaren Txostenean lanak egiteko epeak laburtzen edo jardueren ordenamendurako zatikako epeak ezarri gero, ezinbestean bete beharko lirateke, horrela eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.

5.3. Karatularen “Q” **ATALEAN** hala aurreikusten baldin bada, kontratua amaitutakoan, alde guztien oniritziarekin, kontratua luza daiteke. Luzatzekotan, epea ez litzateke karatularen “J” **ATALEAN** aurreikusitakoa baino luzeagoa izango.

#### **6. ADJUDIKATZEKO ERA**

6.1 EEE/EVEren KABIIn dagozkien kontratuei aplikatzen zaizkien arauak aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan. Kontratua prozedura irekiaren bidez esleitu da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

(i) lehen fasean (“*Eskaintzen aurkezpena*”), interesatutako lizitatzailleek dokumentazio orokorra (A gutun-azala) eskaintza ekonomikoak (B gutun-azala) eta teknikoak (C gutun-azala) aurkeztu ahal izango dituzte;

(ii) bigarren fasean (“*Kontratataren hautaketa*”) lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen aztertu ondoren, EEE/EVEk kontratua formalizatzeko lizitatzaillea hautatuko du; eta

(iii) hirugarren fasean (“*Formalizazioa*”), EEE/EVEk eta hautatutako lizitatzailleak kontratua sinatuko dute.

6.2 EEE/EVEk eta kontratistak men egingo diote informazioaren konfidentzialtasuna babesteko obligazioari, KABIIn 6.(d) atalean ezarritako moduan.

6.3 Kontratazio-organoa “B” **ATALEAN** azaldutakoa izango da.

6.4 Kontratazio-organoari laguntzeko, kontratazio-mahaia edo organo baliokideren bat era daiteke, eta haxe arduratuko da parte-hartze eskaerak kalifikatu eta eskaintzak baloratzeaz.

#### **7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

7.1 Proposamenak aurkezteko epea zabalik egongo da 2013ko urriaren 28ko hamabiak (12:00) arte.

7.2 Proposamenak honako helbide honetara bidali beharko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48001 BILBO. Prentsa eta Komunikazio Sailaren izenean.

7.3 Lizitatzailleak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehieneko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko..



- 7.4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute. Halaber, ezaugarri hori kredita dezakete zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratueterako kontsultabatzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako **“N” ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.
- 7.5 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 59. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean (VIII. eranskina) adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkaturiko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, EEE/EVEren aurrean. Enpresari horiek guztiak aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiak izenpetu behar dute adierazitako agiria.

Parte hartzeko zerbitzu-enpresa izatea eskatuko balitz, ezinbestekoa izango da, sailkapenak metatu ahal izateko (HAKLEOko 52. artikulua), aldi baterako elkarteko enpresa guztiak izatea beren esku zerbitzu-enpresen sailkapena.

- 7.6 Lizitatuzaileen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZa izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.
- 7.7 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, EEE/EVE erakundeko kontratatzailearen profilean lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.
- 7.8 Lizitatuzaileek ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako **“M” ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Lizitatuzaileek ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu, baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarria izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 145 artikulua arautzen duena beteko da.

Adierazitakoa betetzeko izango bada ere, lizitatuzaileek aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratu-xede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.



- 7.9 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.
- 7.10 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, EEE/EVerekin kontratatzeke baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.
- 7.11 Izaera konfidentziala. Beharrezkotzat jotzen baldin bada, enpresa lizitatuzaileak, sekretu teknikoak edo komertzialak direla eta, izaera konfidentzialtzat hartzen dituen informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, VII. eranskinean agertzen den ereduaren arabera, eta hori egiteko arrazoiak azalduko ditu. Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoak ez du izaera hori.
- 7.12 Lehiaketatik edo lizitaziotik at geratuko dira jarraian aipatzen diren kasuren batean baldin badaude, EEE/EVEk behar bezala arrazoitu ondoren:
- Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
  - Eskatutako gaitasun enpresarial/ profesionala egiaztatzeke agiririk ez aurkeztea.
  - Plegu honetan eskatzen diren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatzeke agiririk ez aurkeztea.
  - Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo beste enpresa lizitatuzaileekin batera aldi baterako enpresa eratu.
  - Plegu honetan eta zehaztopen Teknikoen Pleguan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea.
  - TRSPKLen xedatutako baldintzaren bat ez betetzea.

## 8 PROPOSAMENEN EDUKIA

- 8.1 Lizitatuzaileek proposamenak gutun-azaletan aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan CD bana izango da, datu hauek adieraziko dituzte: lizitatuzailearen izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteke, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteke, baldintza-orri honetako karatularen "A" **ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.
- 8.2 Gutun-azalak helbide honetara bidaliko dira: Energiaren Euskal Erakundea, Prentsa eta Komunikazio Sailaren izenean, Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 1. solairua, 48011 BILBO. Baldintza-orri honetako karatularen "E" **ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean. "Gaiari" dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:
- "A" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: dokumentazio administratiboa".
  - "B" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: iritzi bidez ebaluatzeke irizpideak".
  - "C" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: formula matematikoko bidez ebaluatzeke irizpideak".
- 8.3 Baldintza-orri honetako 8.5. atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu "A" gutun-azalak, "B" gutun-azalak 8.6. atalean adierazitakoak eta, azkenik, 8.7. atalean zehaztutakoa "C" gutun-azalak.





8.4 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileek onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta EEE/EVEk uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.

8.5 **“A” gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.**

- EEE/EVEko sarrera-erregistroan aurkeztuko da dokumentazio hori, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azalean, espediente-zenbakia adieraziko da, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako **"A" ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, “Dokumentazio orokorra” dela iragarritz.

- Dokumentazio administratiboaren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatzzaileek eta Estatuko lizitatzzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenean nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz. Horrekin batera, VI. eranskina behar bezala beteta eta VII. eranskina behar bezala beteta eta sinatuta ere aurkeztuko dira.

- Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistrora agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte “A” gutun-azalean:

a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emailea, eta beste pertsonaren baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonak, berariazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.

b. Pertsona juridikoak diren enpresariak jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legeak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.

c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatzeko adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.

d. Ardurapeko adierazpena, ahalmenetako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela TRSPKLen 60. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Horretarako, Plegu honetako II. eranskina bete eta sinatuko da.

Ardurapeko adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.

e. VI. eranskina behar bezala betetzea.

f. XI. eranskina behar bezala betetzea eta sinatzea.



- Baldintza-orriko karatulako **"G" ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du. Hautatutako enpresariak kontratua formalizatzen duenean, amaitu egingo da behin-behineko bermearen indarraldia, eta itzuli egingo zaie hura hautatuak izan ez diren lizitzaileei.
- Lizitzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoari dagokionez, enpresek honako kalifikazio hau kreditatu beharko dute:

<b>Taldea</b>	L – Zerbitzu administratiboak
<b>Azpitaldea</b>	06 – Atezaintza zerbitzuak, sartzeko kontrola eta publikoari informazioa ematea
<b>Kategoria</b>	B

Haren ezean honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

1. Finantza-erakundearen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.
2. Urteko kontuak, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko obligaziorik ez duten enpresariak, bestalde, kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legezkatuta.
3. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, edo haren ezean, kontratu honi lotutako jarduerekin zerikusia duten jardueren negozioaren bolumenarena, azken urtean izandakoen datuei dagokienez.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala

1. Azken hiru (3) urtean honen antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzu nagusien zerrenda lizitzailearen aldetik, haien prezioak, datak eta onuradunak adieraziz.
2. Esleipen honen lanak egiteko lan-taldearen deskribapena, alor horretan langileen gaitasuna eta esperientzia azalduz.

Behar bezala arrazoitutako kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta EEE/EVEk egokitzat jotzen badu egiaztapen-bide hori.

- Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea

Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoez balia daiteke, erakunde horiekin izango dituen harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontratistek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behineko esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.



- b) Azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.
  - c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatu dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
  - d) Etorkizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilaren bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratatu nahi baditu, TRSPKLen 227,2 artikulua a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.
- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzerritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala:

#### Gaitasuna

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztea.
- Gainerako enpresa atzerritarrek,
  - Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrak edo kontsultetxeak emandako txostena aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedari dagokion jarduera-esparruan.
  - Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrak edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrek emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak Merkataritzako Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.
  - Enpresak Espainian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

#### Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala

Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzerritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpresei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri honetako Karatularen "**N**" **ATALEAN** xedatutako moduan.

- Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, TRSPKLeke 67.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.

Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.



- Enpresen langilerian ehuneko bikoia edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoa, berariaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori betetzen dela, baldin eta enpresek TRSPKLeko laugarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.

#### 8.6 “B” gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei lotutako dokumentazioa.

- Lizitatzailleak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:
  - a) Kontratuaren xedea azaltzen duen lan programa. Programa horretan atal hauez zehaztuko dira:
    - Gertaerei aurre egiteko gaitasuna.
    - Lanpostuan jarduteko gaitasuna duten pertsonaren prestutasuna.
    - Zerbitzuari laguntzeko egitura eta bitartekoak.
    - Eskakizun teknikoak hobetzeko proposamenak.
  - b) Zerbitzua emateko proposatzen duen metodologiari buruzko txosten zehatza, eta bereziko atal hauek garatuta:
    - Ordezkapenak egiteko bidea, baje kasuan eta horrelako egoeretan.
    - Bajak, horrelako egoerak eta langileak oporretan egoten direnean, haien ordezkariak diren langileen kualifikazioa, gaitasuna eta esperientzia.
    - Lanak kontrolatzeko eta jarraipena egiteko sistema.
  - c) Prestakuntza plana (batez ere, suteei aurre egiteko praktikaz, larrialdien lehen laguntzez, hizkuntzez eta abar).
  - d) Hobekuntzak. Zerbitzuari balioa emango dioten hobekuntza kuantifikagarriak sartuko dira. Gehienez ere, bost hobekuntza balioetsiko dira.

Nolanahi ere, Zehaztapen Teknikoen Txostenean eta baldintza-orri honetako “O” **ATALEAN** adierazitakoa esleipen-irizpideak baloratzeko behar den dokumentazio guztiak jaso behar dute lizitatzailleek gutun-azal honetan.

Era berean, lizitatzailleek kontratu honetan jasotzen diren lanen atalen bat azpikontratatzeko asmorik badute, kontratuaren zein atali dagokion zehaztasunez adierazi beharko dute. Horrekin batera, azpikontratazio horren prezioa eta arduradunen gaitasun tekniko edo profesionala ere adieraziko da, IX. eranskinean zehaztutakoaren arabera.

Azpikontratatistek geroago egin dezaketen edozein aldaketa, aldez aurretik EEE/EVEren baimenaz egingo da, eta Plegu honen 22 klausula edo atalean xedatutakoa beteko da.

B gutun-azalak ez du edukiko, inola ere, lizitatzailleak eskaintzen dituen baldintza ekonomikoak edo prezioa. Eskakizun hori ez betetzeak eskaintza bazter uztea ekarriko du.

Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.

#### 8.7 “C” gutun-azala: Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak

Baldintza-orri honetako I. ERANSKINEAN jasotako proposamen-ereduari jarraituko zaio (prezioak ezingo du gainditu aurrekontuari ezarri zaion gehienezko zenbatekoa), eta proiektuak adierazitakoa beteko da. Aparteko kontu-sail batean jasoko da balio erantsiaren gaineko zerga.



Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen marraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da.

Lizitatuzaileek ezingo dute, TRSPKLen 145. eta 147. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako Karatularen "**M**" **ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago aurkeztuz gero, bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitatuzaileak.

## **9 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA**

- 9.1 Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.
- 9.2 TRSPKLen 160.1 artikulua xedatutakoa ez da aplikagarria izango, izaera armonizatua duten kontratuei lotutako proposamenen irekieraz.
- 9.3 Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitatuzaileak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Posta elektronikoa erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatuzaileak eskaintzan adierazitako e-postako helbidea.
- 9.4 Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesionala baldintza-orri hauetan adierazitako moduan.

## **10 ESKAINTZA HAUTATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK**

- 10.1 Esleipenari ekin aurretik, EEE/EVEk eskubidea izango du kontratua bertan behera uzteko, espedientean behar bezala justifikatuta, edo hautatzeko prozedurari ez ekitea, kontratua prestatzeko araudietan edota esleipena bideratzeko prozeduran hauste edo akatsen bat gertatuz gero.

EEE/EVEk kontratua deuseztatu edo bertan behera utziz gero, lizitatuzaileei 100 euroko kantitatea emango die.

- 10.2 Lehiaketa esleitu gabe uzten ez badu, esleipena abantailatsuena den proposamenari egiteko aukera izango du EEE/EVEk, eta, horretarako, ez du, ezinbestean, haren balio ekonomikoari erreparatu behar.
- 10.3 Baldintza-orriaren karatulako "**O**" **ATALEAN** adierazitako oinarriko balorazio-irizpideak baliatuko dira eskaintzak baloratzeko.
- 10.4 Irizpide gehigarri gisa, baldin eta horrela ezarri bada, eta proposamen ekonomikoei dagokienez, positibotzat joko dira lanak egiteko eta epeak betetzeko bermeak aurkezten badira.
- 10.5 Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arrazoizko baliora gehien gerturaten diren eskaintzak hautatzea.



- 10.6 Balio ezohikoak edo gehiegizkoak. Eskaintza ekonomiko onuragarrienak balio ezohikoak edo gehiegizkoak izango balitu eta EEE/EVEk, enpresak egindako justifikazioa aintzat hartuta eta eskatutako txostenei jarraiki, eskaintza ezin izango litzatekeela bete, balio ezohikoak edo gehiegizkoak direla eta, behin-behineko esleipena egingo luke bigarren proposamen ekonomiko egokienaren alde, sailkatu diren hurrenkera kontuan hartuz; betiere, EEE/EVEk azken proposamen hori modu onean beteko dela uste badu eta inolako balio ezohiko edo gehiegizkorik ez badu.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak izango ditu honako baldintza hauek betetzen baditu: eskaintzen duen prezioa onartutako proposamenen batez bestekoaren aldean ehunek0 hogeia (%20) gutxiago denean.

- 10.7 Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratuko da: kaudimen teknikoa kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko bikoia

## **11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA**

- 11.1 Eskaintzak baloratu eta enpresaburu esleipenduna hautatzeko gehienezko epea hogeita hamar (30) egunekoa izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, erabakia jakinarazi ez bada, lizitatzailleek, egoki irizten badute, beren proposamenak erretiratzeko asmoa dutela jakinaraz dezakete.

- 11.2 Ekonomikoki eskaintza egokiena egingo duen enpresaburu hautatu ondoren, eta kontratua sinatu aurretik, zenbait agiri aurkeztu behar dizkio EEE/EVEri hautatutako enpresaburuak. Horretarako, hamar (10) egun balioduneko epea izango du gehienez, agiri horiek eskatzen zaizkion unetik aurrera. Hauek dira agiriok:

### a) Zerga-betebeharrak

- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazio Estatuko Agentziak emana, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.
- Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiek emandakoa, administrazioarekin zerga-betebeharrei lotutako zorrik ez duela egiaztatzen duena, edo hertsadura bidea erabiltzeko ez dagokien zergadunen kasuan, borondatezko epean ordaindu ez diren zorren inguruan.

### b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak

Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzaren Lurralde Altxortegiak emandakoa, Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.

### c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

Jarduera ekonomikoen gaineko zergako alta-agiria edo zerga horretako azken errezipoa aurkeztu behar du, eta, horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztuko du (IV. ERANSKINA) zerga horretan bazarik ez duela hartu azalduz. Aurkeztu behar ez baldin badu, hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.



- d) Aseguru enpresak egiaztatuta, aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 20. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.
- e) Behin betiko bermea ezarri izanaren egiaztageria, karatulan "H" atalean hala erabaki baldin bada, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 96. artikuluan adierazitako bideak erabiliko dira bermea eratzeko.
- f) Beste dokumentu batzuk. Kontratatzeko gai den egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa, edo kontratua aurrera eramateko konprometitutako bitartekoak egiaztatzen dituzten dokumentuak.

EEE/EVEko sarrera-erregistroan aurkeztu behar dira agiri horiek guztiak.

Aipatutako epean behar bezala aurkeztu ezean, lizitatuzaileak eskaintza bazter utzi duela ulertuko da. Hori horrela, hurrengo lizitatuzaileari eskatuko zaio dagokion dokumentazioa, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraiki.

- 11.3 EEE/EVEk bost (5) egun balioduneko epearen barruan esleituko du kontratua, dokumentazioa jasotzen den unetik kontatzen hasita. Esleipen hori justifikatu eta motibatu egingo da eta lizitatuzaile guztiei haren berri emango zaie, jakinarazpen baten bidez (faxes/posta/posta elektronikoa) eta Kontratatuzailearen Profileen argitaratuz.

## **12 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

- 12.1 EEE/EVEk bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatzeko gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzekoa ere.
- 12.2 Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamabost (15) egun naturaleko epean egingo da.
- 12.3 Kontratuaren formalizazioaren bitartez, EEE/EVEk kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.
- 12.4 Kontratuak bere baitan bilduko ditu EEE/EVEk kontratatzeke dituen barne arauan jasotako aipamenak.
- 12.5 Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, EEE/EVEk behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak EEE/EVEri kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa (3) izango da.
- 12.6 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.
- 12.7 Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako IFZ ere aurkeztu beharko dute.



12.8 Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.

### **13 KONTRATUA GAUZATZEA**

- a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.
- b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.
- c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita EEE/EVErentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.
- d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).
- e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da.
- f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigortuta dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.
- g) EEE/EVEk ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztu aurretik baimendu ez duen ezein lan..

### **14 KONTRATUAREN ALDAKETA**

1. Honako kasu hauetan alda dezake kontratua EEE/EVEk:

- a) TRSPKLen 107 artikuluan xedatutako arrazoiak tartean badira.
- b) Baldintza-orri edo Plegu honetako X. eranskinean zehazten diren arrazoiak tartean badira. Nolanahi ere, aldaketa horiek ezin izango dute hasierako kontratuaren ehuneko 20a gainditu.

Kontratistak derrigorrean onartu behar ditu aldaketa horiek eta ez du kalte-ordainik eskatzeko eta jasotzeko eskubidea, kontratuaren xedea gauzatzeko lanen gutxitzea edo bertan behera uztea ekarriko badute ere.

2. Kontratuzko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarri eta horiek negoziatu.

3. Kontratuzko aldaketen prezioa finkatzeko, kontratistak eskaintako prezioa hartuko da kontuan.

4. Proiektuan aurreikusi ez diren edo oso ezberdinak diren beste obra batzuk egitea, zerbitzuak edo hornidurak baldin badakartzate aldaketek, horien prezioak EEE/EVEk ezarriko ditu, aldeztu aurretik kontratistari jakinarazita, hiru (3) eguneko gutxienean. Ezarritako prezioak onartu ezean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontrata ditzake aldaketen ondoriozko lan horiek, ezarritako prezio berean edo





gauzatu ditzake zuzenean. Beste enpresaburu batekin egin daitekeen kontratazioa EEE/EVEren kontratazioari lotutako barne jarraibideen arabera egingo da; betiere, kontratuaren kantitatea kontuan hartuz.

5. Kontratuan egin litezkeen aldaketak idatziz azalduko dira.

6. Kontratuaren aldaketen ondorioz, prezioan ere aldaketarik izango balitz, haren behin betiko bermea egokituko litzateke, aldatuko litzatekeen prezio berriarekin proportzio egokian izan dadin. Hori guztia, hamabost eguneko epean egin beharko litzateke, enpresaburuari aldaketaren berri ematen zaion egunetik kontatzen hasita.

7. EEE/EVEren aldetik kontratuaren aldaketa adostuta ere, eta horrek lanen atal batzuk egiten jarraitzeko eragozpenik eragingo balu, kontratua behin-behinekoz, alde edo betiko bertan behera uztea adostu beharko litzateke, kasuan kasu.

8. Aldaketen bideratzeak lanen atal batzuk behin-behinekoz, alde edo betiko bertan behera uztea eskatzen badu, eta horrek interes publikoari kalte handia eragingo balio, EEE/EVEk erabaki dezake lanekin segitzea behin-behinekoz, kontratuaren arduradunak prestatuko duen proposamen teknikoaren arabera; betiere, aldaketaren arrazoiak Baldintza-orri honetako klausulekin bat etorritik eta hori finantzatzeko nahiko krediturik izanik.

## **15 KONTRATUAREN LUZAPENA**

Baldintza-orri honetako Karatulan aurreikusten diren baldintzak betez luza daiteke kontratua.

Aurreikusitako luzapenak gertatuko balira, kontratuaren prezioa hasieran zehaztutakoa izango litzateke, baina, luzapeneko urte bakoitzean berraztertu egingo da aurreko urteari dagokion KPIa aplikatuz, %85 zehazki. KPIa Estatistikako Institutu Nazionalak ezarritakoa izango da (TRSPKLen 90.3 art.).

## **16 PREZIOAREN ORDAINKETA**

Kontratatik EEE/EVEren adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den.

Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratatik ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, EEE/EVEk kontratatari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

## **17 EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK**

a) Kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.

b) Kontratista edozein epeetan berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango EEE/EVEk alde aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak EEE/EVEk ezarriko ditu automatikoki.



c) Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, EEE/EVEk zigorra ezarri ahal dio, eta gehienez ere %20ko zigorra ezar diezaioke. Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten EEE/EVEk kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta EEE/EVEk kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

## **18 KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA**

EEE/EVEk zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatze eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldian igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio, eskaera egiteko epea hogeita lau (24) ordukoa delarik.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, EEE/EVEk lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, EEE/EVEk jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

## **19 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK**

### **19.1 Lan arriskuen prebentzioa**

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du. baita hura garatzen duen araudia ere, hala nola Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua diona bereziki eta urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuak xedatutakoa

### **19.2 Betebehar laboral eta sozialak**

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak – halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higiena, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakiokkeen lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.



d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

f) Kontratua hau sinatzeagatik EEE/EVEk ez du inolako betebeharrak eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du EEE/EVERi erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketean arazoan aurrean.

g) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrak, bai eta kontratistak edo honen azpikontratatuek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzeak datozkienei ere, eta EEE/EVERi ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak. Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio EEE/EVERi. Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan.

h) EEE/EVEk hala eskatzen badiu, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio. Aurkezten ez badiu edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebeharrak bat ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, EEE/EVEk kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du, 25. klausulan edo atalean adierazten den moduan.

i) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere EEE/EVEko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

j) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

k) Behar bezala justifikatuta ez dauden atzerapenak edo dokumentazioa ez aurkezteak ekarriko du kontratua ez betetzea, eta, beraz, EEE/EVEk bertan behera utz dezake kontratua.

### 19.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak

Kontratistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landareetan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratistak. Horretaz gain, EEE/EVEk eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezanean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

### 19.4 Hirugarrenen baimenak

EEE/EVEk bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketa-lanak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz.



Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratistak ordaindu beharko du.

## **20 ASEGURUAK**

Kontratistak honakoa seguru hauek eduki beharko ditu:

a) Erantzukizun zibil profesionalaren asegurua egingo du. Aseguru honek EEE/EVErentzat diharduten profesionalak beste bati eragin ahal dizkioten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak estaltzeko bermea eman behar du.

Aseguru hori ospe handia duen aseguru enpresa batekin sinatu behar da, eta gutxieneko kalte-ordaina ez da 600.000 euro baino txikiagoa izango.

1.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio EEE/EVEri, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketan berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, EEE/EVEren iritziz.

2.- Kontratistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, EEE/EVEk aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontaktatzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, EEE/EVEk eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, EEE/EVEk kontratistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

3.- Aseguruaren inguruan kontratistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontratistei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, EEE/EVEri eman beharko dizkio azalpenak.

4.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak EEE/EVEri jakinaraziko dio. Era berean, EEE/EVEk hala eskatzen baldin badio, kontratistak aseguruaren kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio. Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

5.- Kontratastaren kargura izango diren arrisku, betebeharrak eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, EEE/EVEren edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

6.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.

## **21 DATU PERTSONALEN ERABILERA. KONFIDENTZIALTASUNA**

### **21.1 Datu pertsonalen erabilera**

Datu pertsonalen erabileratzat honako jarduerak hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.



Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako arau hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiekin eraturako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistartzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
  - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
  - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
  - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatuko ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeke aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzeke egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.
6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, EVE/EVEk kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeke.

### 21.2 Konfidentzialtasuna

Informazio konfidentzialtzat joko da kontratistak eskuragarri izango duen informazio pertsonal, kontratuko, banketxe, tekniko edota komertzial oro, kontratatutako zerbitzua egiteko informazioa, hain zuzen ere.

Kontratistak konpromisoa hartzen du modu konfidentzian erabiltzeko halakotzat jotzen den informazio oro, eta plegu honetan azaltzen den xederako baino ez du erabiliko informazioa.



Esleipendunak kontratatutako zerbitzuei buruz ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekotzat edo konfidentzialtzat jotzen dira eta beraien identitate eta sekretua gorde behar ditu, eta EEE/EVEk eskatutako lanak egiteko erabiliko du informazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratistak edo pertsonak ezin izango dute EEE/EVEk emandako informazioa zabaldu, aldatu edo beste bati eman, kontratua gauzatzeko informazioa den aldetik.

Kontratistak konpromisoa hartzen du aipatu informazioa modu konfidentzian erabiltzeko, eta konfidentziasun eta sekretutasun horren berri emango die bere langileei, elkartuei edo kontratistarekin harremanak dituen edonori, EEE/EVEkiko kontratu betebeharrak modu egokian gauzatzeko behar den informazioaz, hain zuzen ere.

Aldez aurretik EEE/EVEk baimena eman ezean, eman zaion edozein dokumentu ez du erreproduzitu ezta kopiatu ere kontratistak (informazio konfidentziala izan dezakeena), zerbitzua emateko ezinbestekoa denean izan ezik.

Kontratutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, hala badagokio, kontratistak dokumentuak eta kopiak itzuli egingo ditu, kontratuaren lanak amaitu eta gero, emango zaizkionak hala eskatzen badio.

Esleipendunak isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalte-galerengatik kalte-ordaina eman beharko die EEERI, legeriaren arabera lizitatuileari egotzi ahal zaizkion erantzukizunez gain

## **22 LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA**

- a) Kontratu honen xedea diren zerbitzuak ezin zaio hirugarrenari laga.
- b) Kontratuaren zerbitzu guztiak edo alde batzuk azpikontratatzeko, EEE/EVEk aldez aurretik eta berriaz baimendu beharko du.

## **23 HIZKUNTZA BALDINTZAK ZERBITZU-KONTRATUETAN**

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berriaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea": a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain



ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezzen, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

## **24 KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, EEE/EVEk kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariatza aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenez egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenez dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

## **25 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA**

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta TRSPKLen 223. artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

(i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, EEE/EVEk egokitzat joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari EEE/EVEk eskatu eta bere horretan gauzatzeko lanak ordainduko litzaizkioke soilik, arrazoi honengatik EEE/EVEri kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.

(ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.

(iii) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, EEE/EVE baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatzuz edota lanak gauzatzen jarraituz, berez edo egokitzat jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

## **26 JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (TRSPKLen 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzeko eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berriaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketan bestelako foroei.



## I. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Izen-abizenak: .....  
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: .....  
Ordezkatzen duen enpresa: .....  
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea: .....  
Enpresaren bulegoen helbidea: .....

Datu horiek Kontrataziorako Oinarrizko Baldintzetan agertzen den eran frogatu ostean, hau adierazten dut:

1. Energiaren Euskal Erakundeak Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36, Bilbon dituen bulegoetako harrera zerbitzua kontratatzea, 2014/01/01etik 2014/12/31ra bitarteko epean, kontratatua esleitzeko antolatutako LEHIAKETAREN berri emateko, EEE/EVERen Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen dut.
2. Baldintza Teknikoen Pleguak, Oinarrizko Baldintzenak eta gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dut.
3. Kontrataziorako Oinarrizko Baldintzen Pleguaren lehen klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ere ezagutzen ditut.
4. Eurekin ados nago eta borondatez, bere osotasunean eta aldaketarik gabe onartzen ditut 2. eta 3. ataletan adierazten diren legezko eta arauzko dokumentu eta testuak.
5. Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, gehieneko prezio hauen arabera: ... euro; gehi BEZari dagokion ... euro. Beraz, guztira ... euro.

[...]n, 20[ ]ko [ ]aren ....(e)an.

[Enpresaren/lizitatzzailearen izena]  
Ahalordez





**II. ERANSKINA**  
**LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin**  
**KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO**

Izen-abizenak: .....  
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: .....  
Ordezkatzen duen enpresa: .....  
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea: .....  
Enpresaren bulegoen helbidea: .....  
.....

**ADIERAZTEN DUT:** Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Eraberritu edo Bateginaren 60. eta 61. artikuluetan araututako kontratatze debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorritik, egiaztatzen dut enpresak egunegun betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

[...]n, 20[ ]ko [ ]aren ....(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]  
Ahalordez



### III. ERANSKINA BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “**Bankua**”) eta haren izenean eta ordezkartzean [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “**Sozietatea**”), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], *Energiaren Euskal Erakundearen* aurrean (aurrerantzean, “**Onuraduna**”), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “**Bermatutako zenbatekoa**”), [kontratuaren izena idatziz] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berariaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontaktzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoiak haurgatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin,

20[ ]ko [ ]aren ....(e)an.

[Lekua eta eguna]

[Erakundearen izen soziala]

[Ahdun(ar)en sinadura]



#### IV. ERANSKINA EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO AITORPENAREN EREDUA

Izen-abizenak: .....  
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: .....  
Ordezkatzen duen enpresa: .....  
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea: .....  
Enpresaren bulegoen helbidea: .....  
.....

**Nire erantzukizunpean, adierazten dut:**

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....

[...]n, 20[ ]ko [ ]aren ....(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]  
Ahalordez



## V. ERANSKINA ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

1.- Harrera zerbitzua bi (2) pertsonak egingo dute, bi (2) txandatan banatuta eta txanda bakoitzeko ordutegi honen arabera:

Lanaldi etenaren ordutegia, enpresaren aldetik:

	Goizeko lanaldia	Arratsaldeko lanaldia
1. txanda	08:00 – 14:00	15:00 – 16:30
2. txanda	11:30 – 15:00	16:00 – 20:00

Lanaldi jarraituaren ordutegia, enpresaren aldetik:

	Lanaldi bakarra
1. txanda	8:00 – 14:30
2. txanda	12:30 – 19:00

2.- Enpresa lizitatzailerak egin beharreko lanak, ager daitezken beste batzuk baztertu gabe, hauexek izango dira:

- EEE/EVE taldeko telefonogunean aritzea eta dagozkien abisuak jakinaraztea.
- EEE/EVE taldeko bulegoetara sarrera kontrolatzea, bisitei harrera egitea eta jendaurrean publikoari arreta egitea.
- EEE/EVE taldearen jardueraz informazioa ematea aurrez aurre eta telefono bidez, diru laguntza programak barne.
- Jasotzen diren paketeak eta posta hartzea eta banatzea. Bidaltzen diren paketeak eta posta kudeatzea eta igortzea.
- Mezularitzaz, postaz edo beste bide batez egiten diren igorpen handiak (mailings) egitea.
- Fotokopiak egitea, faxak bidaltzea, dokumentuak azaleztatzea eta antzeko lanak egitea.
- Lan administratibo osagarriak egitea, Zerbitzu Orokorretako Ataleko arduradunaren aginduz eta jarraibideen arabera.
- EEE/EVEren bulegoetan jardunaldi, bilera, ikastaro eta halakoak izaten direnean, eta horien iraupena zerbitzua emateko ordutegitik kanpo izaten bada, enpresa esleipendunak lan mota horiek egiteko pertsona bat jarriko du EEE/EVEren esku, ekitaldiak irauten duen denboran jarduteko. EEE/EVEk behar besteko aurrerapenez jakinaraziko dio enpresari noiz egingo den horrelako ekitaldia.
- Argiak, fotokopiagailuak eta inprimagailuak itzalita daudela egiaztatzea.
- EEE/EVE taldearen eta Bizkaia plaza eraikinaren larrialdi-planari lotutako neurrietan laguntzea.



3.- Lanposturako eskatzen den prestakuntza hauxe da:

- Euskara: ondo jakitea hitz egiten eta idazten.
- Ingelesa: ondo jakitea hitz egiten eta idazten.
- Office erabiltzaile mailan.
- Suteak itzaltzeko eta lehen laguntza edo sorospen lanak egiteko ezagutza praktikoa.

4.- Enpresa esleipendunak ordezkapenak egiteko sistema bat izango du, zerbitzua emango duten langileek oporrak hartzea eta dagozkien gainerako egun libreez baliatzea ahalbidetuko duena.

Ordezkapen horiek aldeztatik jakinaraziko dira, astebeteko epeaz, bat- bateko gorabeherak eragindakoak izan ezik. Azken horiek ahal bezain laster jakinaraziko dira.

Kontratua modu egokian gauzatzeko, enpresa esleipendunak behar besteko langile egokiak izango ditu, ordezkapenak egokiro egin ahal izateko.

5.- Lana garatzeko behar diren ekipoak eta materiala EEE/EVEren jabetzakoak izango dira. Horien erabilerrari dagokionez, kontratatutako langileak kontuz eta ganoraz arituko dira. Kontratu honen xedea gauzatzeko emango den zerbitzuan gerta litezkeen kalteak esleipendunak ordaindu beharko ditu.

6.- Esleipendunak arduradunen bat aukeratu beharko du, EEE/EVEko zerbitzuaren arduradunarekin bilduko dena, hala eskatzen zaionean, emango duen zerbitzuaren egoeraz informazioa emateko eta zerbitzua gauzatzean gerta litezkeen arazoak aurrean irtenbideak azaltzeko.

7.- Konfidentzialtasuna. Zerbitzua emango duten langileek lana egiteko beharrezkoa den informazioa baino ez dute erabiliko, eta zerbitzua ematean ezin izango dute izaera pribatua edo DPBLen aipatzen den informazioa hirugarrenei eman edo zabaltzea.

8.- Langileen subrogazioa. Gaur egun zerbitzua ematen duten langileen subrogazioa egin beharko du lizitatuak esleipendunak, enpleguan egonkortasun printzipioari eusteko eta bermatzeko.



	Urteko lansaria (2014)	Paga kopurua	Hitzarmen kolektiboa	Oporrak izateko aldia
1. langilea	<b>19.616,88€</b> Gordina urtean <u>Banaketa:</u> Lansari gordina, kategoria 13.164,60€ urtean <u>Lansari osagarria:</u> 6.452,28 € urtean	12	Contact Center	32 egun natural. Enpresaren eta langilearen arteko akordioaren arabera.
2. langilea	<b>19.616,88€</b> Gordina urtean <u>Banaketa:</u> Lansari gordina, kategoria 13.164,60€ urtean <u>Lansari osagarria:</u> 6.452,28 € urtean	12	Contact Center	32 egun natural. Enpresaren eta langilearen arteko akordioaren arabera.

	Kontratu mota	Urteko lanaldia	Ordutegia	Antzintasuna	Kategoria profesionala
1. langilea	401	*	*	2009/01/05	Administrazioko laguntzailea
2. langilea	401	*	*	2009/01/05	Administrazioko laguntzailea

\* Ikus Zehaztapen Teknikoaren Txostenaren 1. atala.



## VI. ERANSKINA ENPRESA LIZITATZAILEAREN OINARRIZKO DATUAK

<b>Enpresa lizitatzaillearen izena</b>	
<b>IFK / IFZ Jarduera nagusia</b>	
<b>Helbide soziala</b>	Zentrala: Bulegoak EAEn:
<b>Harremanetarako</b>	Harremanetarako pertsona: Helbidea: Tel.: Faxa: e-mail:
<b>Langile-kopurua</b>	Guztira: EAEn:
<b>Negozio bolumena</b>	Guztira: EAEn:
<b>Akziodunen edo enpresa taldearen izena</b>  <b>Kontratisten Erregistro Ofizialaren Ziurtagiria (bai/ez)</b>  <b>Kudeaketa sistemen ziurtapena (ISO, UNE edo baliokideak)</b>	

EEE/EVEk, Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011 Bilbon helbidea duenak, hauxe jakinarazten du: hornitzaileek emandako datu pertsonalak edo geroago sortuko direnak fitxategietan sartuko direla eta EEE/EVEren ardurapean geratuko direla.

Datu horiek kontratazio prozesua egiteko erabiliko dira eta, hala badagokio, kontratuen behin behineko esleipenaren ondorioz sor daitekeen harremana bideratzeko eta kontrolatzeko, baita aplikagarria izan daitekeen araudia betetzeko ere.

Nolanahi ere, hornitzaileak datu horiek ikusteko, aldatzeko, ezabatzeko eta inori ematen ez uzteko eskubideak erabil ditzake, datu pertsonalak babesteko legeriak xedatutakoari jarraiki. Horretarako, goraxeago aipatzen den EEE/EVEren helbidera idazki bat bidali behar du, bertan nor den behar bezala egiaztatuz.

Hornitzaileak honako konpromiso hau hartzen du: eskaintzaren bat aurkeztutako pertsonarekin zerikusia duen edozein pertsona fisiko/juridikoaren datu pertsonalak EEE/EVEri eman aurretik eta, hala badagokio, kontratu baten esleipenaren ondoren, pertsona fisiko/juridiko horri aurreko paragrafoetan azaltzen diren testuen edukiaren eta gainerako eskakizunen berri emateko. EEE/EVEk bestelako jardura gehigarri egin beharrik gabe. Era berean, emandako datuen inguruan egin ditzakeen aldaketek eta ezabaketek EEE/EVEri informazioa emateko konpromisoa hartzen du hornitzaileak.



**VII. ERANSKINA**  
**ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO**  
**EREDUA (hautazkoa aurkeztea)**

Izen-abizenak: .....  
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: .....  
Ordezkatzen duen enpresa: .....  
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea: .....  
Enpresaren bulegoen helbidea: .....

**ADIERAZTEN DU**

(\*) zenbakidun kontratazio-espeditenteko ..... (*gutun-azala zein den zehaztu*) gutun-azalean jasotako agirietatik, jarraian aipatzen diren informazioak eta eskaintzako alderdiak konfidentzialak direla, merkataritzako sekretuekin edo sekretu teknikoekin lotura izateagatik. Hauek dira, beraz, agiri konfidentzialak:

Adierazten du, baita ere, agiri horiek konfidentzialak direla ondoko arrazoi hauengatik:

[...]n, 20[ ]ko [ ]aren ....(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]  
Ahalordez

(\*) Plegu honetako karatulan dagoen espediente zenbakia idatzi.





### VIII. ERANSKINA ALDI BATERAKO ENPRESA ERATZEKO KONPROMISOA

Alde batetik,..... jaunak/andreak, ..... zk.ko NAN duenak,.....ren ordezkari (IFK.....,sozietate helbidea: ....., telefonoa....., faxa.....

Bestetik,..... jaunak/andreak, ..... zk.ko NAN duenak,.....ren ordezkari (IFK.....,sozietate helbidea: ....., tel.efonoa....., faxa.....

#### ADIERAZTEN DUTE

I. Ordezkariak enpresek [...] lehiaketan batera eta bat eginik parte hartzeko konpromiso hartzen dutela, eta esleipendunak izanez gero, [...] izeneko aldi baterako enpresa eratzera obligatzen direla.

II. Aldi baterako enpresa osatuko luketen enpresa bakoitzaren partaidetza hauxe izango litzatekeela:

- [...]
- [...]

III. Kontratazio-organoaren aurrean ordezkariari begira, hau izenpetzen dutenek hauxe aukeratu dutela:..... jauna/andrea, adinez ..... nagusia,,.....zk.ko ..... NAN duena,.....kalea, ..... zk.an bizi dena, telefonoa.....eta faxa....., eta beraz, ABE edo UTEren ordezkari osoa izango duela.

.....(e)n, 20[...]ko .....aren ...(e)an

[...]

[...]

\_\_\_\_\_  
Ahalordez

\_\_\_\_\_  
Ahalordez



**IX. ERANSKINA**  
**AZPIKONTRATATZEKO ADIERAZPENAREN EREDUA**

Izen-abizenak: .....  
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: .....  
Ordezkatzen duen enpresa: .....  
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea: .....  
Enpresaren bulegoen helbidea: .....

**ADIERAZTEN DU**

Azpikontratazio hau,

JARDUERA	KONTRATUAREN PREZIOAREN EHUNEKOA (BEZik gabe)	ENPRESA AZPIKONTRATISTA

*(\*) Erantsi azpikontratatzeko konpromisoa edo gutuna eta enpresa azpikontratisten kaudimen teknikoari edota profesionalari lotutako baldintzen inguruko erreferentziak.*

[...]n, 20[ ]ko [ ]aren ....(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]  
Ahalordez



## **X. ERANSKINA KONTRATUA ALDATZEKO ARRAZOI KONBENTZIONALAK**

Kontratua honako arrazoi honegatik alda daiteke:

- Lanen unitateak gehitu, murriztu edo kentzeagatik, kontratazio prozedura hasteko unean zehaztasun osoz finkatzea ezinezkoa denez, beharrezkoak badira.



## **XI. ERANSKINA GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO KONPROMISOAREN ADIERAZPENA**

**Izen-abizenak:** .....  
**Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:** .....  
**Ordezkatzen duen enpresa:** .....  
**Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:** .....  
**Enpresaren bulegoen helbidea:** .....

[...] espediente zenbakia duen LEHIAKETARI dagokionez,

### **ADIERAZTEN DU**

Ordezkatzen duen pertsonak edo erakundeak ez du zigor larririk jaso, ezta kondenarik ere, erabaki administratiboaren bidez edo epai irmoaren bitartez, langileen estatutuaren edo aplikagarria den lan itunaren berdintasunari lotutako betebeharrak ez betetzeagatik.

3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen duela, martxoaren 22ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eragingarriaz diharduena.

### **KONPROMISO HAU HARTZEN DU**

Otsailaren 18ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaz diharduen 4/2005 Legeak (2005eko martxoaren 2ko EHAA) xedatzen dituen betebeharrak bere gain hartzeko, administrazioetik laguntza jaso, harekin kontratuak egin edo lankidetzan aritzen diren erakundeei dagokienez:

- Honako printzipio hauek betetzeko konpromisoa: tratu berdina, aukera berdintasuna, dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea langile guztien artean (3. artikulua).
- Haien jardunetan genero-ikuspegi integrazteko, ekintza positiboa bultzatzeko, sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerrarazteko konpromisoa (3. artikulua).
- Zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetakoko kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izateko konpromisoa (23. artikulua).
- Estatistika eta azterlanak prestatzerakoan, genero-ikuspegia kontuan hartzeko konpromisoa, sexuaren araberako datuak bildu eta aurkeztuz (6. artikulua).
- Sortzen dituzten dokumentu eta euskarrietan hizkera eta irudi sexista ez erabiltzeko konpromisoa (18.4 artikulua).

Eta horrela jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen du, ....., 20.., ....., ...

Sinadura